

XVIII. XENPELAR SARIA

Julian Albistur Aranburu (Xenpelar Bertso Eskola)

Bertsolari gazteen Xenpelar Saria, 1971an sortu zen, herriko euskaltzale eta bertsozale batzuen ekimenez. Zortzi urteko etenaldi baten ondoren, Ereintza Elkartearen ardurapean berreskuratu zen. Geroztik, hasieran urtero egiten bazen ere, azken urteetan bi urtez behin antolatzen da, urte pareetan zehazki (...2000, 2002, 2004).

Sorreratik, bertsolari gazteentzat erreferentzi garrantzitsua izan da Xenpelar Saria. Gaur egun, beste lehiaketa batzuk ere antzolatzen diren arren gazteentzat (Lizardi, Osinalde...), lehiaketa garrantzitsua izaten jarraitzen du. Ikusi besterik ez dago irabazleen zerrenda: Juan Mari Narbaiza, Iñaki Murua, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Perez *Euskitze*, Jon Sarasua, Jokin Sorozabal, Narbarte, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Ainhoa Agirreazaldegi, Amaia Agirre, Nerea Elustondo, Miren Artetxe eta Iñaki Apalategi. Hauetatik bi aldiz irabazitakoak ere badira.

Eskualde guztietako bertsolariek parte hartzen dute.

Azkeneko ekitaldia, 2004ko abenduan jokatu zen. Antolatzaile Ereintza izanik, iazkoan Xenpelar Bertso Eskolaren laguntza izan zuen. Kanporaketa, Egi-Luze sagardotegian jokatu zen abenduaren 4an, afalostean. Eguraldi hotzari aurre egiteko giro epela sortu zen sagardotegian bildutako 90 pertsonen artean.

Bi taldetan banatuta hamasei bertsolarik kantatu zuten. Sei onenak sailkatu ziren finalerako: Iñaki Apalategi, Oihana Bartra, Beñat Lizaso, Julen Zelaieta, Xumai Murua eta Iban Urdangarin.



Kanporaketa Egi-Luze sagardotegian.
Talde bateko bertsolariek kantari



Leku berean, beste taldeko bertsolariek
finalerako txartela lortu nahian



Irudian, Xenpelar. Ondoan, Iñaki Apalategi kantari;
kanporaketan onena izan zen



Epailleak adi. Ez zuten lan erraza izan


Finala, *Errenteria Hiria Kulturgunean* jokatu zen abenduaren 8an, 17:00etan. 150 entzule inguratu ziren.

Aipatu beharra dago data horren arrazoia. Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, *Xenpelar* handia, 1835ean Errenterian jaio zen eta 1869ko abenduaren 8an hil. Finala, *Xenpelar* hildako egun berean jokatzen da. Azkeneko final egunean beraz, 135 urte bete ziren *Xenpelar* hil zenetik.

Iñaki Apalategi izan zen garaile; bigarren, Oihana Bartra eta hirugarren, Julen Zelaieta.



Finala, *Errenteria Hiria Kulturgunean*



Iñaki Apalategi, txapelduna kantari

NARBAIZARI OMENALDIA

Azkeneko edizioan, berrikuntza bezala, 1971an lehenengo *Xenpelar Saria* irabazi zuen Juan Mari Narbaizari omenaldia egin zitzaion. *Euskal makila* jaso zuen Ereintza Elkarteko Lehendakari den Joxe Mari Izagirre jaunak emanda. Lau bertso kantatu zituen Narbaizak, oraindik gai dela erakutsiz.



Narbaiza, Iñaki Apalategiri txapela ematen